

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Leire Urcelay Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Marfínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamaikako irailaren 21ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarrak, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Aitor Urrutia eta Juan Luis Merino.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 21 de setiembre de 2011, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Aitor Urrutia y Juan Luis Merino.



### **1.- Aurreko bilkuretako aktak onartzea.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2011/07/20 eta 2011/07/27

### **2.- AUZO ALKATE izendatutakoek kargua onartzea.**

2011ko irailaren 8ko Alkate erabakiz, ondoren adieraziko diren pertsonak Alkatearen ordezkari (AUZO-ALKATEAK) izendatu ziren Eskoriatzako zazpi elizateetan:

- \* APOTZAGA: Juan María Leceta Abasolo
- \* BOLIBAR-UGAZU: Mikel Gotzon Ortueta Arando
- \* GELLAO: Ana Rosa Iregui Urrutia
- \* MARIN: Alberto Letona Viteri
- \* MAZMELA: Iban Diaz Ochandiano
- \* ZARIMUTZ: Ane Gaztañaga Pagalday
- \* MENDIOLA: Ane Miren Arrese Iturbe
- \* LETEKO baserri gunea: Mónica Madinabeitia

Izendatutako guztiak egon dira ekitaldi honetan, eta berariaz onartu dute emandako kargua.

### **3.- Alkatearen adierazpenak.**

Alkateak 2011ko irailaren 15era arte hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

### **4.- Gai zerrendan hainbat gai sartzeari berrestea.**

Dagokien batzorde informatzailearen diktamenik ez dagoenez, batzordeetan quorumik egon ez delako, Udaltzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaiak gai zerrendan sartzeari

- Alkatearen dedikazio portzentajea aldatzea.
- Zinegotzi karguan aritzeko dedikazio partziala onartzea.

### **5.- 2011-2015 agintaldirako Eskoriatzako Udalaren hizkuntz politika onartzea.**

Euskara azpibatzaileak "2011-2015 agintaldirako HIZKUNTZA POLITIKA" izeneko txostena aurkeztu du. Bertan, euskararen normalizazioan udalak jarraitu nahi duen ildo eta hartuko dituen konpromisoak jasotzen dira, lau ataletan sailkatuta:

- Itzulpen politika
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak
- Langile eta funtzionarioen hautaketarako irizpideak
- Kontratazio administratiboetarako irizpideak

Lau atal horietatik lehenari erreparatu zaio bereziki, hau da, itzulpen politikari, hor jasotzen diren proposamenak udalbatza berriaren ezaugarrietara egokituta baitaude, eta beraz hori baita legealdi honetarako berariaz egindako proposamena. Gainontzeko 3 ataletan jasotakoa, berriz, 2008ko azaroaren 29ko osoko Bilkuran onartu zen.

Aurrez esandako guztia oinarritzat hartuta, Kultura batzordeak 2011ko irailaren 13an emandako aldeko diktamenarekin, eta bertaratutako zinegotzien guztien aldeko botoekin, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:



LEHENENGOA: "Itzulpen politika" proposamen berria onartzea.

BIGARRENA: 2008ko abenduaren 29ko Osoko Bilkuran onartutako hizkuntza irizpideak berrestea: "Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak", "Langile eta funtzionarioen hautaketarako irizpideak" eta "Kontratazio administratiboetarako irizpideak".

HIRUGARRENA: Aurreko dokumentuekin osatutako "2011-2015 agintaldirako HIZKUNTZA POLITIKA" txostena onartzea eta agintaldi honetan aplikatzea.

#### **6.- Alkatearen dedikazio portzentajea aldatzea.**

Udalbatzarrak ondorengo erabakia hartu zuen 2011ko uztailaren 20an:

**Lehenengoa:** Beinat Herce Leceta Alkate jaunak lanaldiaren % 40ko denbora partzialeko dedikazioa izatea bere karguan 2011ko abuztuaren 31ra arte, eta % 100ekoa egun horretatik aurrera.

Alkateak dedikazioa erregimen berria proposatu du eta horretarako arrazoiak azaldu ditu.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Beinat Herce Leceta jaunak % 80ko denbora partzialeko dedikazioa izatea bere karguan 2011ko urriaren 1etik aurrera.

#### **7.- Zinegotzi karguan aritzeko dedikazio partziala onartzea.**

Alkate jaunak proposatuta, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Leire Urcelay Letona zinegotzi andreak lanaldiko % 20ko dedikazioarekin bete dezala bere kargua.

**Bigarrena:** Lanaldi partzialeko dedikazioarengatik ondorengo ordainsari erregimena finkatzea: UDALHITZeko 25. mailari dagokion portzentajea.

**Hirugarrena:** Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzari urriaren 1etik aurrera Leire Urcelay andrea afiliatzeko eta alta emateko eskatzea, Udalak bere gain hartuz Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko arauak beraien zerbitzupeko langileei buruz enpresei ezartzen dizkien beharrak.

#### **8.- Mozioa: "MARIXOL IPARRAGUIRRE GOSE GREBAN"**

Alkate jaunak mozioa irakurri du.

Ondoren, bototara jarri du.

Cantero jaunak kontra bozkatzeko arrazoia azaldu du: bere alderdiak ez duela presoaren benetako egoera ezagutzen.

Bozketa eginda, aurkako boto batekin (Cantero jauna), 2 abstentzioekin (Madinabeitia eta Akizu jaunak), eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, ondorengo mozioa onartu da:



*Marixol Iparragirre Eskoriatzako herritarra martxoaz geroztik Frantziako Lyon-go espetxean dago. Bertara iritsi zenetik bere, eta bertan dauden euskal herritarren egoerak okerrera egin du, espetxea dagozkion eskubideak gutxinaka murriztuz joan delako.*

- *Bizibaldintzen inguruan kartzelako zuzendariarekin lortutako hitzarmenak eten egin dituzte, kartzelak berak bertan behera utzi ditu.*
- *Bisitak egiteko orduan, bisitara doan lagunarekiko kontrol neurriak indartu egin dituzte.*
- *Bisitak eduki beharko lukeen pribatitatea galerazten dute ate-joka, bisitara sartuz eta abar.*
- *Bisita unean afektibitate adierazpenak (besarkada bat, adibidez) debekatzen dute.*
- *Eskutitzak atzerapen haundiarekin iristen zaizkie.*
- *Bertako bizi baldintzak direla eta izan dituzten arazo guztiak bideratzeko egindako salaketak ez dituzte aintzat hartzen, bideratu ere ez baitituzte egiten, eta salaketa jarrita dagoela ere ukatu egiten dute.*

*Guzti hori dela eta, egun egoera salatze gose greba burutzen ari dira Lyongo espetxean dauden euskal herritarrak irailaren 12az geroztik, beraien oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezen.*

*Hau guztiagatik, Eskoriatzako Udaltzako*

**ADIERAZTEN DU:**

1. *Marixol Iparragirre eskoriatzarraren egoeragatik ardura erakusten duela.*
2. *Bere oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzen duela.*
3. *Mozio honen edukia Lyongo espetxeari jakinaraziko zaiola, gure herritarrarekiko dugun ardura azalduaz. Baita komunikabideei ere, publiko egin dadin.*
4. *Mozio honen edukia jakinaraziko zaiela Espainiako Gobernuko Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari-Barne Ministerioari eta Justizia Ministerioari.*

## **9.- Galde-eskeak.**

Ez dago.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaituzat ematen da bilkura arratsaldeko zazpiak eta bost minututan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



### **1.- Aprobación de actas de sesiones anteriores**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fechas 20-09-2011 y 27-09-2011

### **2.- Aceptación de cargo por los nombrados AUZO ALKATE.**

Por Resolución de Alcaldía de fecha 8 de setiembre de 2011 se nombró representante personal de la Alcaldía (AUZO ALKATE) en cada una de las siete Anteiglesias de Eskoriatza a los vecinos que a continuación se relacionarán:

- \* APOTZAGA: Juan María Leceta Abasolo
- \* BOLIBAR-UGAZU: Mikel Gotzon Ortueta Arando
- \* GELLAO: Ana Rosa Iregui Urrutia
- \* MARIN: Alberto Letona Viteri
- \* MAZMELA: Iban Diaz Ochandiano
- \* ZARIMUTZ: Ane Gaztañaga Pagalday
- \* MENDIOLA: Ane Miren Arrese Iturbe
- \* Núcleo rural de LETE: Mónica Madinabeitia

Todos los nombrados se encuentran presentes en este acto y de forma expresa aceptan el cargo que les ha sido encomendado.

### **3.- Comunicaciones de la Alcaldía.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 15 de setiembre de 2011 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

### **4.- Ratificación sobre inclusión de asuntos en el orden del día.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión dentro del orden del día de los siguientes asuntos que no han sido dictaminados por la Comisión Informativa correspondiente:

- Modificación del porcentaje de dedicación del Alcalde.
- Ejercicio del cargo de concejal con dedicación parcial.

### **5.- Aprobación de la “Política Lingüística del ayuntamiento de Eskoriatza para la legislatura 2011-2015”**

La subcomisión de euskera ha analizado el informe “POLÍTICA LINGÜÍSTICA para el periodo de mandato 2011-2015”. En el mismo se recogen las líneas que el Ayuntamiento quiere seguir en la normalización del euskera y los compromisos que se adquieren, clasificados en cuatro apartados:

- Política de traducción.
- Criterios para la utilización de las lenguas oficiales.
- Criterios para la selección de trabajadores y funcionarios.
- Criterios para la contratación administrativa.

De entre esos apartados, se ha puesto especial hincapié en el primero, esto es, en la política lingüística, puesto que las propuestas incluidas en el mismo están adaptadas a las características de



la nueva corporación, y por lo tanto, se trata de una propuesta realizada expresamente para este mandato. Lo recogido en los 3 apartados restantes se acordó en el pleno celebrado el 29 de noviembre de 2008.

Teniendo en cuenta todo lo anteriormente mencionado, con el dictamen favorable de la comisión de cultura del 13 de septiembre de 2011, y con el voto favorable de los corporativos presentes, el pleno resuelve lo siguiente:

PRIMERO: Aprobar la nueva propuesta sobre “política de traducción”.

SEGUNDO: Ratificar los criterios lingüísticos aprobados en el pleno municipal celebrado el 29 de diciembre de 2008: “*criterios para la utilización de las lenguas oficiales*”, “*Criterios para la elección de trabajadores y funcionarios*” y “*Criterios de contratación administrativa*”.

TERCERO: Aprobar el informe “POLÍTICA LINGÜÍSTICA para el periodo de mandato 2011-2015” integrado por los documentos referidos anteriormente.

#### **6.- Modificación del porcentaje de dedicación del Alcalde.**

Con fecha 20 de julio de 2011, el Pleno adoptó el siguiente acuerdo:

**Primero:** *Que el Sr. Alcalde D. Beinat Herce Leceta , desempeñe su cargo con dedicación del 40% de la jornada hasta el próximo 31 de agosto de 2011, y con una dedicación del 100% a partir de dicha fecha.*

El Alcalde hace propuesta de un nuevo régimen de dedicación y justifica las razones de ello.

De conformidad con la propuesta y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el pleno acuerda:

**Primero:** *Que el Sr. Alcalde D. Beinat Herce Leceta , desempeñe su cargo con dedicación del 80% a partir del 1 de octubre de 2011.*

#### **7.- Ejercicio del cargo de concejal con dedicación parcial.**

A propuesta del Sr. Alcalde y con el voto a favor de todos los corporativos presente, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** *Que la concejala Dña. Leire Urcelay Letona desempeñe su cargo con dedicación del 20% de la jornada.*

**Segundo:** Fijar el siguiente régimen de retribución por su dedicación a jornada parcial:  
Porcentaje correspondiente del Nivel 25 del UDALHITZ

**Tercero:** Solicitar ante la Tesorería Territorial de la Seguridad Social la afiliación y alta a partir del próximo día 1 de octubre , asumiendo el Ayuntamiento las obligaciones que las normas de Régimen General de la Seguridad Social imponen a las Empresas en relación con los trabajadores a su servicio.

#### **8.- Moción sobre “MARIXOL IPARRAGUIRRE GOSE GREBAN”**

El Alcalde lee el texto de la moción.

A continuación somete la moción a votación.



El Sr. Cantero explica las razones por las que va a votar en contra, que consisten en el desconocimiento que su partido tiene sobre la situación real de la presa en concreto.

Realizada la votación, con el resultado de 1 voto en contra (Sr. Cantero), 2 abstenciones (Sr. Madinabeitia y Sr. Akizu), y el voto a favor el resto de los corporativos presentes, es aprobada la siguiente moción:

*Marixol Iparragirre, vecina de Eskoriatza, se encuentra desde marzo en la cárcel francesa de Lyon. Desde que llegó a la prisión, su situación, y la de los ciudadanos vascos que se encuentran en la misma, ha empeorado debido a que la dirección de la cárcel ha ido reduciendo paulatinamente sus derechos.*

- *Se han roto los acuerdos sobre las condiciones de vida alcanzados con la dirección de la cárcel, ha sido la propia dirección de la cárcel la que las ha dejado sin efecto.*
- *A la hora de las visitas, se han incrementado las medidas de control de los visitantes.*
- *Se impide la privacidad que deberían de tener las visitas, llamando a la puerta, entrando al lugar de la visita etc.*
- *Prohíben las muestras de afectividad en las visitas (por ejemplo, los abrazos).*
- *La correspondencia llega con gran retraso.*
- *No se toman en consideración las denuncias realizadas para encauzar todos los problemas habidos por las condiciones de vida en la prisión, ya que ni siquiera han sido tramitadas, e incluso han negado que hubiera denuncias interpuestas.*

*Debido a ello, desde el 12 de septiembre los ciudadanos vascos presos en la cárcel de Lyon están llevando a cabo una huelga de hambre para denunciar la situación actual y que se respeten sus derechos básicos.*

*Por todo lo anterior, el Ayuntamiento de Eskoriatza manifiesta lo siguiente:*

1. *Muestra su preocupación por la situación de la eskoriatzarra Marixol Iparragirre.*
2. *Solicita que se respeten sus derechos básicos.*
3. *Que se notifique el contenido de esta moción, en la que se manifiesta nuestra preocupación por nuestra vecina, a la cárcel de Lyon, así como a los medios de comunicación para que se haga público.*
4. *Que se notifique el contenido de esta moción a la Dirección General de Instituciones Penitenciarias-Ministerio del Interior y al Ministerio de Justicia del gobierno español.*

## **9.- Ruegos y Preguntas.**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las diecinueve horas y cinco minutos. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**